

## La autonomía de Pyrenaica


**L**a estructura de Euskal Mendizale Federazioa se cimenta desde sus orígenes sobre dos pilares: los clubes y Pyrenaica. En 1926, a los dos años de fundarse nuestra federación, se crea su órgano de difusión "... para el fomento de la noble afición a la montaña, las enseñanzas del excursionismo y el amor a la naturaleza, con especial interés en lo que afecta al País Vasco Navarro..." Desde esa lejana fecha, los presidentes que se suceden al frente de EMF asumen el funcionamiento autónomo de la revista, tanto a nivel de contenidos como en su gestión económica. En justa correspondencia, Pyrenaica no interviene en los conflictos internos, ni se posiciona durante los procesos electorales. En definitiva, la autonomía de Pyrenaica conlleva su neutralidad en todo lo que concierne a EMF, las Federaciones Territoriales y los clubes.

Sin esos dos conceptos inseparables: autonomía e imparcialidad, nuestra revista no habría llegado a cumplir 86 años, durante los cuales ha estado sometida a múltiples avatares organizativos y económicos, históricos y políticos. Si alguna junta directiva pretendiese dirigir su funcionamiento interno, censurar los contenidos informativos, condicionar la libre expresión de lectores y lectoras, o intervenir sus cuentas más allá de la supervisión de ingresos y gastos, Pyrenaica perdería su razón de ser. Confiamos en que tal situación no se dé nunca.

Pyrenaica necesita el respeto y el apoyo de todos los estamentos federativos para poder desarrollar su labor divulgativa: informar con rigor y objetividad, documentar todo tipo de actividades montañeras, de Euskal Herria y cualquier lugar del planeta. El modelo de funcionamiento autónomo ha dado resultados óptimos a nivel de contenidos y en el plano económico. Su singular carácter de publicación con categoría profesional, sin ser comercial, es decir, sin retribuir la elaboración ni las colaboraciones, posibilita difundir la revista por un precio inferior al de cualquier otra y permite editar valiosas obras que amplían y complementan la temática de la revista.

Las encuestas certifican el arraigo de Pyrenaica entre las 30.000 personas que la reciben. Los acuerdos de intercambio con diversas revistas de montaña prueban su implantación internacional. Sin embargo, por encima de cualquier otra consideración está el hecho de constituir, junto con los clubes, la columna vertebral de EMF. Sus páginas acogen la memoria colectiva y el patrimonio cultural de nuestra federación. Tomando en consideración la trascendencia histórica de nuestra revista, los valores deportivos y humanistas que promueve, así como el servicio que rinde a la comunidad montañera y al conjunto de la sociedad, el Equipo de Redacción está recabando información a fin de solicitar el reconocimiento oficial de Pyrenaica como Bien Cultural Inmaterial de Euskal Herria. Confiamos en que el actual Presidente de EMF y su Junta Directiva asuman la idea y se pongan al frente de la iniciativa, realizando las gestiones precisas para hacer realidad ese ilusionante proyecto.

Consejo de Redacción



## Pyrenaicaren autonomia

**S**ORRERATIK bi izan dira Euskal Mendizale Federazioaren Segitura oinarritzen den zutabeak: mendi taldeak eta Pyrenaica. 1926an, federazioa fundatu eta bi urterea, bere hedabidea sortu zuen "...mendizaletasuna, txangozaletasunaren irakaspenak eta izadiarekiko maitasuna sustatzeko, bereziki Euskal Herriari arreta egin..." Ordutik hona, EMFren lehendakariekin aldizkariaren funtzionamendu autonomoa onartu ohi dute, bai edukieei dagokienez baita bere jarduera ekonomikoaren kudeaketari dagokionean ere. Halaber, Pyrenaicak ez du esku hartzen barne gatazketa ezta jarrerarik erakusten hauteskundeak direnean. Azken batez, Pyrenaicaren autonomiak, EMF, Lurraldetako Federazio eta mendi taldee dagozki kontuetan neutraltasuna dakar berekin.

Bi kontzeptu bereizezin hauek gabe, autonomia eta inpartzialtasuna, askotariko gorabehera politiko, historiko eta ekonomikoaren eraginpean egon den gure aldizkariak ez zituen gaur egun dituen 86 urte beteko. Zuzendaritzaren batek barne funtzionamenduan eragin, eduki informatiboak zentsuratu, irakurleen adierazpen askatasuna baldintzatu edota dirusarra eta gastuen ikuskapena baino haratago egiten saiatuko balitz, Pyrenaicak izateko arrazoia galduko luke. Halakorik ez gertatzea espero dugu.

Pyrenaicak bere dibulgaziozko lana egiten jarraitzea nahi badugu, hau da, zehaztasun eta objektibotasunez informatu eta Euskal Herriko zein planeta osoko mendi jarduera mota guztien berriak zabaldu, federazioko estamentu guztien begirunea eta sostengua behar du. Funtzionamendu autonomo honek emaitza ezin hobeak eman ditu eduki mailan eta arlo ekonomikoan. Maila profesionalako argitalpen singular honek ez du izaera komertzialik, hau da, ez ditu kolaborazioak ordaintzen eta honek beste edozein aldizkarik baino prezio merkeagoan zabaltzen laguntzen du, eta bide batez, aldizkaria bera osatu eta hedatzen duten balio handiko lanak argitaratzea baimentzen du.

Aldizkaria jasotzen dute 30.000 lagunen artean duen errotza egiaztatzen dute orain arte egindako inkestek. Beste mendi aldizkarietan lortutako trukerako akordioek aldizkariak nazioarte mailan duen ezarpena erakusten dute. Hala ere, beste edozein konsiderazioen gainetik, mendi taldeekin batera EMFren bizarrezurra osatzean bilatu behar dugu bere funtsa. Bere orrialdeetan gure federazioaren oroi men kolektiboa eta ondasun kulturala jaso ohi dira betidanik. Gure aldizkariak duen garrantzia historikoa, bultzatzen dituen kirol eta balio humanistikoak, mendi-komunitateari eta gizarte osoari ematen dion zerbitzua aintzat hartuz, une honetan Erredakzio Batzordea informazioa biltzen ari da Pyrenaica aldizkaria Euskal Herriko Ondasun Kultural eta Immateriala izenda dezaten. Ziur gara egungo EMFren Lehendakariak eta bere Zuzendaritza Batzordeak ideia hau jaso eta ekimena bultzatzeko aitzindaritza hartuko dutela, ilusioz hasitako proiektu honen alde beharrekoak izango diren urratsak emanez.

Erredakzio Batzorde